

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak aurrera egin dezan, baliabideak multzo desberdinetan banatuta daude: fisikoak, materialak ez direnak eta giza baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, bulegoa eta biltegia bilduko dituen espazioa izango da garrantzitsuenetariko bat. Bestalde, makineria ezinbestekoa izango da gure produktua ekoizteko eta honekin batera bulegorako eta biltegirako beste hainbat baliabide beharko ditugu: bulegoko altzariak, biltegiko apalategia, telefonoa, ordenagailuak, inprimagailua eta material korrontea besteak beste. Horrez gain, lehengaiak beharko ditugu produktua ekoizteko, hala nola, eguzki plaka txikiak, telefono mugikorren zorroak, etab.

Baliabide ez-materialei dagokionez, patentea izango da garrantzitsuena. Horrez gain, webgunea eta sare sozialak ezinbestekoak izango dira gure produktua ezagutu eta kontsumitzaile guztien eskura egon dadin. Bestalde, honek domeinua eta hosting zerbitzuaren beharrak dakartza besteak beste, hori dela eta, *Hostgator Starter* plana aukeratu dugu, urtean 93€ ordainduz. Baliabideak lortu ahal izateko, maileguak eskatuko ditugu, izan ere, kapital guztia biltzeko laguntza ekonomikoa behar dugu.

Amaitzeko, giza baliabide eta baliabide intelektualak kontuan harturik, proiektua martxan jarri eta beronen funtzionamendua bermatzeko nahikoa izango dugu taldea osatzen dugun lau kideekin eta langile gutxi batzuekin. Lehenik eta behin, mugikorren zorroari dagokien eraldaketak egiteko bi langile kontratatuko ditugu. Hasierako ekoizpen-maila txikiago izanda da, orduan gure produktuak indarra hartzen duen heinean eta eskaria handitzen doan bitartean langile gehiago kontratatzeko prest egongo ginateke, gure enpresaren hazkundera aurrera eramateko beharrezkoa izango balitz.

Taldea osatzen dugun beste lau kideok enpresaren barnean dauden gainerako funtzioak betetzen ditugu. Nadia Rubiok dituen teknologia ezagutzak funtsezkoak izango dira komunikazio arloa aurrera eramateko, sare sozialak eta webgunea kontrolatuz. Libe Aizpuruak, aldiz, diru kontuekin duen trebetasuna gure administrazio lanetan praktikan jarriko du. Beñat Aginagalde gizarteratzeko eta antolatzeko dituen gaitasunekin harreman publiko lanetan arituko da eta kalitatea kontrolatzeaz arduratuko. Azkenik, Alba Suarez en antolaketa gaitasuna eta txukuntasuna paketeen erregistro eta antolaketarako ezinbestekoa izango da. Gainera, kudeaketaz arduratuko da, lan-taldeak zuzentzen eta baliabideak koordinatzean. Bada guztiok amankomunean dugun funtsezko ezaugarri bat: gizartearen parte garen heinean, gure proiektuaren xede den komunitatearen parte gara.